

Euskadiko enplegu datuen balorazioa, 2025eko apirila
Enplegu eta Inklusio sailburuordea, Alfonso Gurpegui

1.503 langabe gutxiago zenbatu dira apirilean, zazpigarren hilabetez jarraian urte arteko saldo negatiboa izan da, eta Gizarte Segurantzak beste errekor historiko bat izan du 1.024.840 kotizatzailearekin

Enpleguak portaera hobea du lehentasunezko kolektiboetan, eta horien artean 30 urtetik beherakoak nabarmentzen dira; talde horretan 1.089 gaztek utzi diote langabeziari (- % 5,80)

Urteko laugarren hilabetea 106.811 langaberekin amaitu da, 48.770 kontratazio sinatu ondoren, % 24 mugagabeak, eta kopuru hori egonkor mantentzen da lan erreformaz geroztik

Euskadiko enpleguak bere alde ona erakutsi du berriro ere apirilean, Gizarte Segurantzako afiliazioaren errekor berri batekin eta sektore gehienetan, adin tarte guztietan, lurralde guztietan eta gizonen zein emakumeen artean erregistratutako langabeziak behera egin baitu.

Gainera, apirileko datuek joera positiboa berretsi dute, urte arteko tasa negatiboak ondoz ondoko zazpi hilabetetan batu ostean.

Apirilean martxoan baino 1.503 langabe gutxiago (- % 1,39) eta 2024ko apirilean baino 2.742 gutxiago (- % 2,50) izan ziren, hein batean zerbitzuen sektoreak Aste Santuan izandako gorakadaren ondorioz. Horrela, enpleguaren bilakaera positiboa berretsi da, hilabete hau zazpigarrena izan baita jarraian urte arteko saldo negatiboarekin, eta 106.811 langabe zenbatu dira.

Adin tarteen arabera, 30 urtetik beherako taldea izan da langabeziatik gehien atera den taldea (-1.089), eta joan den hilabetea, berriz, 45 urtetik gorakoa (-295). Horrek erakusten du Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak abian jarritako politikak fruituak ematen ari direla, lehentasunezko kolektiboetako pertsonen, gazteen eta 50 urtetik gorakoen prestakuntza eta enplegarritasuna sustatzeko ekintzen bidez.

Sexuaren arabera, emakumeen langabeziak portaera hobe izan du, 922 emakume langabe gutxiagorekin, eta langabeziaren zerrendetatik atera dira 581 gizon. Urte arteko balantzean, 1.576 emakumek aurkitu dute lana, eta 1.166 gizonek.

Sektoreka, hileko terminoetan, langabeziak behera egin du sektore guztietan, industrian izan ezik (+95 pertsona), agian manufaktura sektorean nazioarteko ezegonkortasun ekonomikoak eta Estatu Batuetako presidentek iragarritako muga zergek eragindako ziurgabetasunen ondorioz. Bilakaerarik onena zerbitzuen sektorean izan da, 1.213 langabe gutxiagorekin (- % 1,60), eta aurretik enplegurik ez zutenen taldean, - % 282 (- % 1,94).

Urte arteko datuei erreparatuz gero, sektore guztietan joera positiboa da nagusi: eraikuntza (- % 8,53 eta 583 langabe gutxiagorekin) eta zerbitzuen sektorea (- % 2,88 eta -2.215 langabe gutxiagorekin); ondoren nekazaritza eta arrantza (- % 5,54 eta -112). Aurreko enplegurik gabekoen taldearen hil arteko datua ona izan arren (-282), urte arteko balantzeak erakusten du talde horretako 116 pertsona gehiago daudela langabezia 2024ko apirilean baino.

Kontratuak eta Gizarte Segurantza

Kontratazioari dagokionez, apirilean 48.770 kontratu erregistratu dira; horietatik 11.700 (% 24) mugagabeak izan dira, eta ehuneko hori egonkor mantendu da lan erreformaz geroztik.

Sektoreka, ohikoa den bezala, etxeetako jarduerak nabarmentzen dira, kontratu mugagabeen % 85,4rekin, eta eraikuntza, % 66,6ko kontratazio mugagabearen tasarekin, sektore horietan joera positiboa berretsiz. Erauzketa industriak hirugarren mailara igo dira, % 60rekin, eta higiezinaren jarduera laugarren postura lekualdatu du (% 57,9).

Gizarte Segurantzako afiliazioaren errekor historiko berria izan du Euskadik apirilean 2.402 kotizatzaile irabazi baititu, aurreko hilean baino % 0,23 gehiago. Beraz, guztira, 1.024.840 afiliatu ditu, abenduan baino 329 gehiago. Urte arteko datuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoan 11.124 langile afiliatu dira, 2024ko apirilaren aldean, hau da, % 1,10 gehiago.

Ondorioz, ziurgabetasun globalak gorabehera, joera positiboa berretsi da sektore guztietan; batez ere, urte arteko terminoetan. Dinamika hori lan merkatua ari da



irekitzen, bereziki, lanpostu bat lortzeko zailtasun handienak zituzten pertsonei; hala nola, gazteei, emakumeei eta 45 urtetik gorakoei, eta horrek bultzatzen gaitu lehentasunezko kolektibo horientzako enplegu politika aktiboak bultzatzen jarraitzera Enplegu Zerbitzu Publikotik, Lanbidetik eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Saitetik.


2025eko apirileko langabe eskatzaileak

				Hileko bilakaera		Urteko bilakaera	
	api.-2025	mar.-2025	api.-2024	Saldoa	Eb %	Saldoa	Eb %
SEXUA:							
GIZON	45.212	45.793	46.378	-581	-1,27	-1.166	-2,51
EMAKUMEA	61.599	62.521	63.175	-922	-1,47	-1.576	-2,49
30 URTETIK BEHERA:							
BIAK	17.674	18.763	17.461	-1.089	-5,80	213	1,22
GIZON	8.944	9.378	8.687	-434	-4,63	257	2,96
EMAKUMEA	8.730	9.385	8.774	-655	-6,98	-44	-0,50
30 URTETIK 44RA:							
BIAK	30.265	30.393	31.711	-128	-0,42	-1.446	-4,56
GIZON	11.451	11.538	12.236	-87	-0,75	-785	-6,42
EMAKUMEA	18.814	18.855	19.475	-41	-0,22	-661	-3,39
45 URTETIK GORA:							
BIAK	58.872	59.158	60.381	-286	-0,48	-1.509	-2,50
GIZON	24.817	24.877	25.455	-60	-0,24	-638	-2,51
EMAKUMEA	34.055	34.281	34.926	-226	-0,66	-871	-2,49
SEKTOREA:							
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	1.427	1.425	1.409	2	0,14	18	1,28
INDUSTRIA	20.942	21.336	21.512	-394	-1,85	-570	-2,65
ERAIKUNTZA	1.230	1.211	1.272	19	1,57	-42	-3,30
ZERBITZUAK	15.659	16.006	16.262	-347	-2,17	-603	-3,71
AURREKO ENPLEGURIK GABE	4.106	4.084	4.213	22	0,54	-107	-2,54
LURRALDE HISTORIKOA:							
Araba	18.586	18.751	18.806	-165	-0,88	-220	-1,17



Bizkaia	60.003	61.073	61.624	-1.070	-1,75	-1.621	-2,63
Gipuzkoa	28.222	28.490	29.123	-268	-0,94	-901	-3,09
EAE	106.811	108.314	109.553	-1.503	-1,39	-2.742	-2,50

1.- ESKATZAILE LANGABEEN HILEKO SALDOAREN BILAKAERA 2008tik





2.- ESKATZAILE LANGABEEN URTE ARTEKO SALDOAREN BILAKAERA 2008tik



Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzak 6a